

4.- Arabako Lurralde Historikoaren katastro higiezinaren osaketa, kontserbazio, berrikuspen eta beste funtzio batzuen kostuaren banaketa.

1998tik, Arabako udalek katastro higiezina mantentzeko kostuaren %50 hartzen dute euren gain. Baina Arabako Lurralde Historikoaren katastro higiezinaren osaketa, kontserbazioa, berrikuspena eta horren inguruko beste funtzio batzuk Foru Aldundiari dagokio modu **esklusiboan**; beraz, EUDELe defendatu izan du kostua Arabako Foru Aldundiak hartu behar duela bere gain oso-osorik.

Bizkaiko eta Gipuzkoako Lurralde Historikoetan, katastro higiezinaren mantenimenduaren kostua Bizkaiko Foru Aldundiak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak hartzen dute beren gain, hurrenez hurren. Zentzu horretan, ez da bidezkoa Arabako udalek kostuaren %50 hartzea euren gain 1998az geroztik.

Hori dela-eta, martxoan, EUDELe Arabako Lurralde Batzordean hartutako akordioa bidali zien Batzar Nagusietako taldeei, Arabako Batzar Nagusietako lehendakariari eta ATAFLKen presidenteari (Arabako Toki Administrazioaren eta Finantzen Lurralde Kontseilua). Akordio horren bitartez, udalak Foru eskumenekoa den kostu baten kargu egitera derrigortzen dituen Xedapen arauemailea bertan behera uzteko eskaera egin zen, Arabako Batzar Nagusietan hasiera eman dakion arauaren aldaketaren tramitazioari.